**GAMIZ-FIKAKO UDALA**

**IRAGARPENA, udal-harmarria aldatzeko hasiarazi den espedientea jendaurrean jartzen dela jakinarazteko dena.** 7032

**AYUNTAMIENTO DE GAMIZ-FIKA**

**ANUNCIO relativo a la exposición pública del expediente instruido para el cambio del escudo municipal.** 7032

# Xedapen Orokorrak

## LEHENDAKARITZA

### 2370

**5/1993 LEGEA, uztailaren 16koa, Autonomi Elkarte Osorako Erakundeen eta Bertako Kondaira Lurraldeetako Foruzko Ihardutze Erakundeen arteko harremanei buruzko Legea aldatzekoa.**

Eusko Legebiltzarrak ondoko Legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

UZTAILAREN 16KO 5/1993 LEGEA, AUTONOMI ELKARTE OSORAKO ERAKUNDEEN ETA BERTAKO KONDAIRA LURRALDEETAKO FORUZKO IHARDUTZE ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANEI BURUZKO LEGEA ALDATZEKOA.

ZIOEN ADIERAZPENA

Autonomia-Elkarte osorako erakundeen eta bertako Kondaira Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 7.c) 5 atalean eskuduntza-eremuen banaketa egiten da lurraldea eta hirigintza antolatzeari dagozkionetan eta honako ahalmen hauek ematen zaizkie foru-organuei: goragoko maila duen planeamenduko xedapenen garapenbideak izan daitezen instrumentuei buruzko iniziatibak hartu, horiek izapidetu, onartu eta burutzezkoak hain zuzen.

Eskuduntzen banaketa horren ondorioz, zerbitzuen eskualdaketei buruzko dekretuak argitaratu ziren: Arabako Kondaira-Lurralderako, martxoaren 5eko 35/1985 Dekretua; Gipuzkoako Kondaira-Lurralderako, martxoaren 5eko 42/1985 Dekretua eta Bizkaiko Kondaira-Lurralderako, martxoaren 5eko 54/1985 Dekretua.

Euskal Autonomi Elkarte osorako erakundeek goragoko maila duen lurralde-planeamendua onartuta ez izan arren ere, lurralde historikoek beren hirigintza-egitekoak bete ditzaketenaren interpretazioa egiten da dekretu horietan. Kasu honetarako eta bakoitzari da-

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA

### 2370

**LEY 5/1993, de 16 de julio, de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco y los Organos Forales de sus Territorios Históricos.**

Se hace saber a todos los ciudadanos de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

LEY 5/1993, DE 16 DE JULIO, DE MODIFICACIÓN DE LA LEY DE RELACIONES ENTRE LAS INSTITUCIONES COMUNES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA Y LOS ÓRGANOS FORALES DE SUS TERRITORIOS HISTÓRICOS.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

En materia de ordenación territorial y urbanística la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, en su artículo 7.c) 5, establece la distribución competencial en base al criterio de atribuir a estos últimos las facultades de iniciativa, tramitación, aprobación y ejecución de aquellos instrumentos que sean desarrollo de las determinaciones del planeamiento de rango superior.

En virtud de dicha previsión competencial se publicaron los correspondientes Decretos de traspaso de servicios, siendo tales el Decreto 35/1985, de 5 de marzo, relativo al Territorio Histórico de Álava, el Decreto 42/1985, de 5 de marzo, relativo al Territorio Histórico de Guipúzcoa, y el Decreto 54/1985, de 5 de marzo, relativo al Territorio Histórico de Bizkaia.

En dichos Decretos se sigue la interpretación de que los Territorios Históricos podían ejercer sus funciones urbanísticas aunque las Instituciones Comunes no hubieren aprobado el planeamiento territorial de rango superior, regulándose en este caso, y para salva-

gozkion eskuduntza-eremuak errespetatu ahal izateko, koordinazio-sistema bat arautzen da, Euskal Autonomi Elkarte osorako ahalmenak izango dituen organu batek arauzko eta bete beharreko txostenak emango dituela horretarako: Lurraldea Antolatzeko Batzordea.

Eskuduntza-eremu ezberdinak errespetatzeko sistema zail honek zerbitzu-eskualdaketei buruzko dekretu horiek onartu zirenetik hasita iraun du indarrean. Hala ere, eskualdaketei buruzko dekretu horiek oinarri hartzen duteneko printzipioen interpretazioa arazobide izan da, Euskal Autonomi Elkartean indarrean dauden hirigintza-arauak eztabaidapean jarri dira eta, honek, eragina izan du segurtasun juridikoari buruzko printzipioan.

Horiek horrela, 27/1983 Legeko 7.c) 5 atala aldatu egiten da lege honen bidez. Bi helburu lortu nahi dira aldaketa horren bidez.

Alde batetik, arlo honi buruz foru-erakundeek dituzten eskuduntzei buruz sor daitezkeen zalantza guztiak alboratzea.

Bigarren, eta segurtasun juridikoari buruzko printzipioa kontutan hartuz, lege honetako testuari atzera-eraginezko emankortasuna eskaintzea, 27/1983 Legea indarrean jarri zen egunetik hasita ekarriko dituela ondorioak. Era honetan, foru-erakundeen ihardutze-eremuari buruz sor daitekeen edozein eratako eskuduntza-eztabaida baztertuta geldituko da, izan ere, udal-planeamendurako instrumentu zehatzak onartzen baitira bertan, zerbitzuen eskualdaketei buruzko dekretuetan ezartzen denaren arabera.

Norbanakoen eskubide bereziak zigortze edo mugatze xedapenen atzera-eragina finkatzen da Konstituzioan. Eta lege honetan finkatzen den atzera-eraginak ez du ezertxo ere Konstituzioko agindu horren aurka, izan ere, lege honen izakera beste moetakoa baita. Euskal Autonomi Elkartearen eskuduntzen barne-banaketa arautzen da artez lege honetan. Ezarrita dagoen atzera-eragitearen ondorioak direla medio iraun dute indarrean, gaur arte sortu diren egoera juridikoek.

ATAL BAKARRA:

Autonomia-Elkarte osorako erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 7.c) 5 atalari bi lerroaldi eransten zaizkio. Honako era honetan idatzita gelditzen da:

"7.c) 5 atala.-

Goragoko maila duen planeamenduko xedapenak garatzeko xedez burutu eta xedapen horiek hartzen duten eremuaren barruan, Kondaira-Lurraldeei dagokie lurraldea eta hirigintza antolatzeko instrumentuei buruzko iniziatibak izan, horiek idatzi, burutu, kudeatu, fiskalizatu, informatu eta onartzeko ahalmena, hirigintza arloari dagozkionetan. Eta hori, beste izaiki publiko eta hirigintza-organu batzuek legez izan ditzaten eskuduntzen kaltetan gabe.

Lurraldea antolatzeko instrumentuetan jasotzen diren xedapenak joko dira goragoko maila duten planeamendutzat. Instrumentu horiek onartu arte, Euskal Autonomi Elkartea Antolatzeko Ba-

guardar los ámbitos competenciales de cada uno, un sistema de coordinación mediante informes preceptivos y vinculantes de un órgano de la Comunidad Autónoma: la Comisión de Ordenación del Territorio.

Este complejo sistema de salvaguarda de los distintos ámbitos competenciales ha funcionado desde la aprobación de los citados Decretos de traspaso de servicios. Sin embargo, la interpretación en que se fundamentan estos Decretos de traspaso ha sido objeto de litigios que someten a controversia el ordenamiento urbanístico vigente en Euskadi afectando al principio de seguridad jurídica.

Es por ello que la presente Ley modifica la literalidad del artículo 7.c) 5 de la Ley 27/1983, con una doble finalidad.

Por un lado, despejar cualquier duda que se pueda plantear sobre las competencias de las Instituciones Forales en la materia.

Por otro lado, y en aras del principio de seguridad jurídica, dar eficacia retroactiva al texto de la presente Ley, estableciendo sus efectos desde la fecha de entrada en vigor de la Ley 27/1983. De esta manera, la Ley evita cualquier controversia competencial sobre la actuación de los Órganos Forales, al aprobar, conforme a lo establecido en los correspondientes Decretos de traspaso de servicios, instrumentos concretos de planeamiento municipal.

Tal virtualidad retroactiva en nada colide con el mandato constitucional que proscribe la retroactividad de las disposiciones sancionadoras o restrictivas de derechos individuales singulares, por no tener dicha naturaleza la presente Ley, en tanto que se refiere directamente a la distribución competencial interna de la Comunidad Autónoma, manteniéndose precisamente por el efecto retroactivo que se establece las situaciones jurídicas creadas hasta el momento.

ARTÍCULO ÚNICO:

Se añaden dos párrafos al artículo 7.c) 5 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, quedando redactado como sigue:

"Artículo 7.c) 5.-

En materia de urbanismo, corresponde a los Territorios Históricos las facultades de iniciativa, redacción, ejecución, gestión, fiscalización e información, así como las de aprobación de los instrumentos de la Ordenación Territorial y Urbanística, en desarrollo de las determinaciones del planeamiento de rango superior, dentro de su ámbito de aplicación, sin perjuicio de las competencias atribuidas por la Ley a otros entes públicos y órganos urbanísticos.

Se entenderá por determinaciones de planeamiento de rango superior las comprendidas en los instrumentos de Ordenación Territorial. En tanto no se aprueben estos cumplirán tal

tzordeak eman ditzan irizpideek beteko dute egiteko hori, honako alde hauei dagozkienetan:

- etxebizitza, industri eta zerbitzu eremuen garapena zenbatzea

- azpiegiturak, ekipamenduak, errekurtso naturalak, ihardunak eta arloak, horien antolaketa, ekintza horien xedea kontutan hartuta, Kondaira Lurraldeen eskuduntzapekoa izan ez dadin kasuetan.

Ondorioz, honako hau dagokie Kondaira-Lurraldeei: hirigintza antolatzeko instrumentu guztiei onarpena ematea hain zuzen. Ez dira horretan sartzen lurraldea edo hirigintza antolatzeko instrumentuak garatzen dituzten eta Euskal Autonomi Osorako diren Instituzioei izendatutako eskuduntza sektorialak burutzeko landutako plan bereziak".

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Lege honek 1983ko abenduaren 10a arteko atzera-eragina izango du.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Lege hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egun berean jarriko da indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Ajuria-Enea Jauregia, 1993ko uztailak 19.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

función los criterios de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en lo que se refiere a los siguientes aspectos:

- Cuantificación del desarrollo residencial, industrial y de servicios.

- Infraestucturas, equipamientos, recursos naturales, actividades y materias cuya ordenación por razón de su objeto no sea competencia de los Territorios Históricos.

En consecuencia, corresponde a los Territorios Históricos la aprobación de todos los instrumentos de Ordenación Urbanística, con la única excepción de los planes especiales en ejecución de competencias sectoriales atribuidas a las Instituciones Comunes que desarrollen instrumentos de Ordenación Territorial o Urbanística".

DISPOSICIÓN FINAL PRIMERA

La presente Ley tendrá efecto retroactivo al 10 de diciembre de 1983.

DISPOSICIÓN FINAL SEGUNDA

La presente Ley entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Palacio de Ajuria-Enea, a 19 de julio de 1993.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

## EKONOMI ETA OGASUN SAILA

### 2371

180/1993 DEKRETUA, ekainaren 22koa, Jaurlaritzako Sailen Estatistikarako Organu Bereziak arautzen dituena.

Euskal Autonomi Elkarteko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeko 26. atalean, zera ezartzen da: Jaurlaritzako Sailetan sortutako Estatistikarako Organu Bereziek osatzen dutela Euskal Autonomi Elkarteko Estatiskaren antolaketa, besteak beste. Lege bereko 27. atalean, beren arauketa propioa izango dutela ezartzen da.

Geroago, Estatistikako 89/92 Euskal Plana onartzen duen urriaren 6ko 7/1989 Legean berriro aipatzen dira Estatiskarako Organu Berezi horiek eta Euskal Estatistika Batzordearen txostena aztertu ondoren Jaurlaritzak onarpena emango dion arautegiz arautuko dela beroien

## DEPARTAMENTO DE ECONOMIA Y HACIENDA

### 2371

DECRETO 180/1993, de 22 de junio, por el que se regulan los Organos Estadísticos Específicos de los Departamentos del Gobierno.

La Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, dispone en su artículo 26 que constituyen la Organización Estadística de la indicada Comunidad Autónoma, entre otros, los Organos Estadísticos Específicos que se hubieren constituido en los Departamentos del Gobierno; y el artículo 27 de la misma Ley remite la regulación a su normativa propia.

Posteriormente, la Ley 7/1989, de 6 de octubre, por la que se aprueba el Plan Vasco de Estadística 89/92, vuelve a referirse a dichos Organos Estadísticos Específicos para disponer que su creación, organización y funcionamiento será regulada por reglamento que deberá